



Gure herrian zoo bat zabaldu dute. Andereñoak esan digu kurtso amaieran joango garela animaliak ikustera. Zooan mota askotako animaliak daude: elefanteak, jirafak, lehoiak...

Niri beldur gehiago ematen didatenak krokodiloak eta sugeak dira. Hartza panda eta tximinoak gustokoak ditut.

EGIA ALA GEZURRA

- ☐ Gure herrian zirko bat ipini dute.
- ☐ Andereñoak esan digu kurtso amaieran joango garela pailazoak ikustera.
- ☐ Zooan mota askotako animaliak daude: elefanteak, jirafak, lehoiak...
- ☐ Niri beldur gehiago ematen didatenak krokodiloak eta sugeak dira.
- ☐ Hartza panda eta txitoak gustokoak ditut.